PRENTSA OHARRA

Joan den ostiraleko udalbatzaren, ordainsari eta talde politikoei ordainketaren inguruan gehiengoaz adostutako akordioari buruz, PSE-EE eta EAJ-PNV udal taldeek osatutako gobernuak, pasaitar guztiei hurrengoa jakin arazi nahi die:

Alkatearen soldata Udalhitzeko 14. maila batetik, 21. maila batera pasako da, alkatearen ordainsaria 1828€tik, 2381€ra pasako delarik.

Gobernuko bi zinegotziek, dedikazio osoagatik jasoko duten ordainsari garbia, 1828€koa da (Udalhitzeko 14. maila)

Oposizioan dauden Bildu eta Pasaia ahal duko zinegotzien soldata garbia 1678€koa da (Udalhitzeko 12. maila).

Dedikazio erdian egongo diren zinegotzi delegatuen ordainsaria, 1023€koa izango da.

Talde politikoek jasoko duten ordainketa finkoa, 300€tik 450€ra pasako da, eta zinegotzi bakoitzagatik jasoko dutena 100€tik 150€tara.

Legeak esaten du, liberazio bat duten zinegotziek, ezingo dutela dietarik jaso, ez udalbatzarretara joateagatik, ez batzordetara joateagatik ere.

Bildu agintean zegoela, gobernu organoak soldatetan gastatu zuen kopuruarekin alderatuz, 3000€ gehiagokoa izango da hilero. Honek esan nahi du %16'7 batean igoko dela gastua.

Gastu totala dela eta, soldata berriek, bai PSE-EE eta EAJ-PNV gobernua osatzen duten taldeak, eta bai Bildu eta Pasaia Ahal du oposizioko taldeak kontutan hartuta, aurrekontuan jasota dagoenarekiko %3,03 igoko da.

Talde politikoei ordainsariak direla eta (taldea/zinegotzia), honen igoera izan da azpimarratzekoena, non talde politikoari ordainsaria nagusitu den, zinegotzi kopuruak distortsiorik sor ez dezan.

Horrela, aurreko legealdian, gehiengoa zuen taldeak (Bildu, 8 zinegotzirekin), kontzeptu honetan banatutako diruaren %64'70 jasotzen zuen. Legealdi honetan berriz, PSE eta EAJ-PNV taldeek osatutako gobernuak (10 zinegotzi), aurrekontu honen %55a eramango du.

Gobernu taldeak publiko egin nahi izan ditu datu hauek komunikabideen bidez, datuen nahasketa interesatua alde batera utzi eta benetako datuak zeintzuk diren argitzeko.

Udal gobernua osatzen dugun taldeok, argi geneukan, 1/2015 Foru Dekretuak markatzen duenaren azpitik jarri behar genituela soldatak, non honek esaten baitu, Pasaiaren tamainako herrientzat, alkatearen soldata 67.000€en gainetik egon beharko lukeela. Era berean ulertzen dugu, alkatearen soldata Pasaia bezelako herri batek suposatzen duen arduraren pare egon behar dela.

Salatu nahi dugu, oposizioak gai honen inguruan egiten duen erabilera alderdikoia, ez baita udal politika aberasten duen jarrera bat. Proposamen eta

koherentzia falta besterik ez ditu justifikatzen, bai Bildu eta bai Pasaia Ahal duk, udal gobernua osatu duten herrietan, oso ordainsari ezberdinak onartu baititu, esaterako, Errenterian, non Podemoseko zinegotziak Pasaiako Alkateak baina gehiago kobratuko duen, taldeei ordainsaria 1500€koa den (Pasaiako 450€tatik oso hurrun), eta non udalbatzarretara joateagatik dieta Pasaiako laukoitza den (350€koa Errenterian, 90€koa Pasaian).

Gainera, datu interesatu eta desitxuratuak emateaz gain, Bilduko kideek azaldu beharko lukete, zergatik kontratau zen Alkatetzarako komunikazio enpresa bat aurreko legealdian, 40.000€ kostatu zena, eta ez prentsa arduradun bat konfidantzazko kargu moduan. Beharbada, horrela, soldata bat gehiago “estaltzen” zutelako.

Era berean, ez zuten arazorik ikusi Maider Ziganda alkate zela, 25 mailako soldata jaso zuenean, 21eko gutxieneko maila onartuta zegoela. Ez da aitzakia oposizioaren proposamena izan zela esatea, ikusi baitugu Pasaia Ahal Duko zinegotzi den Nerea Gonzálezek bere soldata maila batean jeitsi duela (75€tan), nahiz eta udalbatzarran hartutako akordioak 12. maila markatzen duen.

Era berean, Pasaia Ahal Du hain interesaturik badago Udaletxe honi dirua aurrezteko alderdi politikoei ordainsariei dagokienean, herritarrei azaldu beharko lieke zergatik udaletxe honetan liberatuta dagoen bere bozeramalea, 3 batzordeetan bakarrik dagoen izendatuta, batzordeak 15 direnean. Batzorde hauetara guztietara bera joango balitz, bere taldekideen dietak aurreztuko lituzke, eta ez luke ezkutuko soldata bat lortu nahiko luketen susmoa piztuko.

NOTA DE PRENSA

En relación al acuerdo plenario adoptado el pasado viernes relativo a las retribuciones y aportaciones económicas a grupos políticos, el equipo de gobierno formado por PSE-EE y EAJ-Pnv desea informar a todos los pasaitarras de los siguiente:

.- La retribución de la alcaldesa pasa de un nivel 14 a un nivel 21 de Udalhitz,lo que supondrá que el sueldo neto que perciba pasará de 1828€ a 2381€.

.- El sueldo neto de los dos concejales de gobierno con dedicación total (nivel 14 Udalhitz) será de 1828€

.- El sueldo neto de los concejales de la oposición de Bildu y Pasaia Ahal Du será de 1678€ (nivel 12 Udalhitz)

.- El sueldo neto de los concejales delegados a dedicación parcial (50%) será de 1.023€

.-Las aportaciones fijas para los diferentes grupos políticos pasan de ser 300€ por grupo y 100€ por concejal , a ser de 450€ por grupo y 150€ por concejal.

.- Esta legalmente establecido que los corporativos que tiene asignada una liberación, no pueden cobrar las dietas por asistencia ni a pleno ni a comisión.

Respecto al gasto en salarios que venía realizando en órganos de gobierno con el anterior gobierno de Bildu, supondrá un gasto de 3.000€ más al mes .Estas cifras se traducen en que el gasto anual en salarios derivados directamente del gobierno se verá incrementado en un 16,7% respecto de los que suponía el gobierno de Bildu.

En relación al gasto total, los nuevos sueldos , tanto del gobierno conformado por PSE-EE y PNV como los de la oposición de Bildu y Pasaia Ahal Du ,supondrán un incremento de gasto ,respecto de lo que ya estaba presupuestado del 3,03%.

La diferencia más significativa es la que supone las aportaciones a los grupos políticos viene dada por el incremento en la aportación en los grupos políticos (grupo/concejal) donde se ha primado la aportación por grupo para que el numero de concejales no genere distorsiones.

Así, antes, el grupo mayoritario (Bildu 8 concejales) era el beneficiario del 64,70% del total del gasto en este concepto; a diferencia de esta legislatura, donde la coalición de gobierno formada por Pse-EE y Eaj-Pnv (10 concejales) percibirá el 55% del presupuesto consignado.

El equipo de gobierno ha querido hacer público a través de los medios de comunicación estos datos ,para arrojar claridad y certeza a la confusión interesada de datos y cifras que con motivo del pleno se han difundido.

Los grupos que conformamos el gobierno entendimos que teníamos que fijar las retribuciones muy por debajo de lo que marca el Decreto Foral 1/ 2015 que lo regula,

que establece para municipios de la población de Pasaia, debe establecerse una retribución para el alcalde que alcanzaba más de 67.000€.
A la vez entendemos que el salario de la Primera Edil , debe estar acorde con la gran responsabilidad legal que supone ostentar la Alcaldía de un municipio como Pasaia .

Queremos denunciar y reprochar a las fuerzas de la oposición la utilización partidista de este particular, pues no es una actitud que enriquezca la política municipal .Solo esta orientada a justificar una total ausencia de propuestas y de coherencia ya que , tanto Bildu como Pasaia Ahal Du han apoyado retribuciones muy superiores a las aprobadas en Pasaia en otros municipios en los que han acordado gobierno, como es el ejemplo de Errenteria,donde el concejal de Podemos cobrará más que la Alcaldesa de Pasaia, la aportación por grupo municipal es de 1500€, muy lejos de los 450€ de este ayuntamiento y donde la dieta por asistencia a plenos, cuadriplica la de Pasaia, con los 350€ de Renteria frente a nuestros 90€

Ademas de dar "d*atos interesados y tergiversado*s" ,los miembros de Bildu deberían explicar por que la pasada legislatura se contrato a una empresa especifica para realizar las labores de comunicación de Alcaldía por 40.000€ y no un responsable de prensa como gasto de personal de confianza , quizá por que así "*encubría* "un sueldo mas
Así mismo, tampoco existió problema alguno en que Maider Ziganda se marcara un sueldo de nivel 25 ,cuando estaba establecido el mínimo del nivel 21. No sirve de excusa decir que fue a propuesta de la oposición , ya que hemos asistido a como Nerea González (Pasaia Ahal Du), el pasado viernes ,decidió bajarse un nivel su sueldo (la reducción es de 75€) a pesar del acuerdo plenario adoptado que lo establece en un nivel 12.

Así mismo, si Pasaia Ahal Du esta tan interesado en ahorrar dinero en este Ayuntamiento en materia de retribuciones a políticos, debería explicar a la ciudadanía porque su portavoz , liberada por este ayuntamiento, solo esta designada en 3 de las 15 comisiones informativas. De acudir ella a las Comisiones, se ahorrarían las dietas de sus compañeros de Partido y no sembraría la sospecha de querer percibir un suelo encubierto .

Pasaian, 2015ko uztailaren 28an.

LORE SUAREZ
Pvoz. Pse-EE

NAHIKARI OTERMIN
Pvoz.Eaj-Pnv.